

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Ingurumenaren arloko jardunbide onenentzako Itun Berdea Sarien X. edizioako laguntzen deialdi publikoa eta oinarriak

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, «Ingurumenaren arloko jardunbide onenentzako Itun Berdea Sarien X. edizioaren deialdi publikoa eta oinarriak onetsi zituen.

Berariazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten entitate eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke deialdiaren oinarriak.

Erabaki horrek administrazio-bidea amaitzen du, eta beraren kontra zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Nolanahi ere, aldez aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hilabeteko epean, hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori espresuki edo presuntzioz ebatzi arte—. Guztia ere, Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.1 artikuluetan xedatutakoaren ildotik, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtso baliatzeko aukera.

Deialdiaren berariazko oinarri arautzaileen publikizateari buruz araudietan xedatutakoa betetze aldera, argitara ematen dira:

Arau-esparrua

2026ko ingurumen-jardunbide onenentzako Itun Berdea Sarien X. edizioaren deialdi hau deialdiaren oinarriek eta dirulaguntzen ordenantza orokorrak (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zk.) arautuko dute. Ordenantza hori 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantza hauetan aurreikusi gabekoetan, 38/2003 Legea (azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Orokorra) eta haren erregelamendua aplikatuko da (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsia), eta halaber aplikatzekoak diren gainerako arauak.

1. oinarria. Dirulaguntzen plan estrategikoa eta dirulaguntza-ildoak

Laguntza hauek indarrean dagoen dirulaguntzen plan estrategikoan (2025-2027) aurreikusten dira, zeina 2025eko urtarrilaren 17an onetsi baitzuen Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak.

Plan horren arabera, laguntza hauek “Enpresak sustatzeko laguntzak” (08_04_v03 fitxa) dirulaguntza-ildoaren barruan daude, eta honako hau dute xede: Vitoria-Gasteizko udalerrian enpresen sorrera eta garapena bultzatzea, eta ekonomiaren sustapena eta lehiakortasunaren hobekuntza babestu eta bultzatzea.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Itun Berdea Sarien deialdiaren xedea da Itun Berdearen komunitateari atxikitako erakundeek jardunbiderik onenei ezagutza publikoa egitea; hain zuzen, erakunde horiek NBERen garapen jasangarriko helburuekin (aurrerantzean GJH) bat etorritik ezarri zituzten jardunbide horiek, beren jardueraren inpaktu negatiboa murriztearen eta era horretan tokiko ekoizpen sistemak produkzio zirkularreko eta karbono gutxiako beste eredu batera igaroaraztearen.

Itun Berdea, izan ere, negozio- eta ekoizpen-ereduak eraldatzearen alde apustu egiten duten enpresen eta enpresa-esparruko erakundeek udal plataforma bat da, ekonomia berde eta zirkularrako trantsizioa bideratua, funtsezkoa baita klima-aldaketaren aurkako erronkari ekiteko. Erakunde horiek ingurumen-kudeaketaren jarraibideak bere egiten dituzte, hiriaren eta inguruen garapen ekonomiko jasangarria bultzatzeko. Ingurumen kudeaketarekin konprometitutako profesional eta enpresen sarea sortu eta sendotzea du helburu, Vitoria-Gasteiz ekonomia zirkularraren erreferente gisa posizionatu dadin, eta hiri berdearen marka indartu. Aukera baten moduan dago pentsatua, enpresek, beren jarduera-sektorea edo tamaina edozein dela ere, ingurumen-konpromisoetan aurrera egin dezaten eta beren jarduera ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko modu efizienteago baterantz bidera dezaten.

Deialdiak Garapenen Jasangarriko Helburu (GJH) hauen betetze-maila du helburu, batez ere:

12 – “Kontsumo eta ekoizpen arduratsua”

13 – “Klimaren aldeko ekintza”

17 – “Helburuak lortzeko aliantzak”

Hauek dira Itun Berdea Sarien X. edizioako deialdiaren helburuak:

– Itun Berdeari atxikitako erakundeek klima-aldaketari eta haren eraginei aurre egiteko egiten dituzten ahaleginak jendaurrean saritu, ezagutarazi eta zabaltzea.

– Enpresen esparruan erabilgarritasun praktikoa duten jarduketak ezagutzera eman eta erakustea, gida eta eredu gisa funtziona dezaten, eta beste enpresa batzuetara aldatzeko modua izan dadin.

– Ingurumenaren alorreko inplikazioa, motibazioa eta kontzientziazioa lortzea, hala zuzendaritzarena nola langile guztiena.

– Garapen jasangarriaren aldeko ekintzak bultzatzea, era guztietako enpresa-jardueretan.

– Negozioa egiteko eta enpresa egiteko modu berriak aurkitzea, non ingurumen-inpaktu positiboek pertsona guztien eta planetaren bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duten.

3. oinarria. Saritu daitezkeen ekintzak

Sari honetara aurkeztutako ekimenek garapen jasangarriko 12. helburua (kontsumo eta ekoizpen arduratsua) eta 13.a (klimaren aldeko ekintza) betetzen lagundu behar dute, eta erakundeak hobekuntza-esparru hauetakoren batean ezarri dituen alderdi zehatzen ingurukoak izan beharko dira:

Ekonomia zirkularra:

– Ekodiseinua, zerbitziazioa, birmoldatzea/konponketa/berregokitzea/retrofitting-a/birmaketa eta birziklatze aurreratua, honako hauek xede:

- lehengaien kontsumoa gutxitzea,

- lehengaien ordez bigarren mailako materialak jartzea,

- hondakinak minimizatzea eta balio materiala ematea.

– Bizi-zikloaren analisia egitea fase bakoitzak –lehengaiak lortzeko prozesuak, fabrikazioak, biltegiratzeak, banaketak, kontsumoak eta bizi-amaierak– duen ingurumen inpaktua ezagutzeko.

Ingurumen-aztarna:

- Berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko neurriak –zuzeneko energiaren eta materialen baitako energiaren kontsumoa murriztuz, energia berriztagarriak sortuz– eta jardueraren inpaktu klimatikoa murrizteko konpentsazio-ekintzak.
- Ur eskaria kontrolatzeko neurriak eta enpresan zuzeneko nahiz zeharkako ur-kontsumoa murrizteko ekintzak.
- Enpresaren jarduerak beste inpaktu-kategoria batzuetan duen eragina murrizteko beste edozein neurri.
- Ingurumen-sentsibilizazioa.
- Bozgorailuarena egiten duten ekintzak, enpresaren interes-taldeetan ingurumen-zaintza hedatu eta sustatzen dutenak, jasangarritasunaren aldeko ekintzara eragile gehiago erakartzen dutenak.

Naturan oinarritutako soluzioak:

- Lurralde- eta hiri-kudeaketaren arloko hainbat arazori konponbidea bilatzeko naturako printzipioak baliatzen dituzten ekintzak; esaterako, klima-aldaketarekiko egokitzapena, baliabideen kudeaketa edo airearen eta ingurunearen kalitatea. Ikuspegi horretatik, enpresak jadanik ez dira naturako produktu eta zerbitzuen onuradun pasibo hutsak; aitzitik, modu proaktibo eta estrategikoan babesten, kudeatzen eta lehengoratzten dituzte ekosistemak.

4. oinarria. Sarien kategoriak

Itun Berdeari atxikitako erakundeek jaso ahal izango dute saria, baldin eta, Itun Berdearen komunitateko balioen presentzia handitzea lortu badute, beren jarduera-eremuan ekimenak garatuta. Bi sari mota daude:

I. Zuzkidura ekonomikoa duen saria:

Enpresen tamainaren arabera hiru kategoria daude, eta 2.000,00 euroko saria bakoitzean:

- Mikroenpresa kategoria: 1-9 langile.
- Enpresa txikien kategoria: 10-49 langile.
- Kategoria ertaina eta enpresa handia: ≥ 50 pertsona.

Saria emateko, indarrean dagoen zerga-araudia bete beharko da.

II. Zuzkidura ekonomikorik gabeko saria:

Ohorezkoa da, hau da, ez du zenbateko ekonomikorik, baina bai aitorten publiko eta instituzionala.

- Vitoria-Gasteiztik kanpoko enpresak.
- Sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak izatea, Vitoria-Gasteizkoak izan edo ez.
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta elkarte- eta lanbide-jarduerak egiten dituztenak izatea, Vitoria-Gasteizkoak izan edo ez.

Hautagai diren erakundeez gain, hautagai den erakunde batek egindako jardunbide ona ezagutzen duten elkarteek ere aurkeztu ahal izango dute haren hautagaitza, erakundearen alde zuzeneko baimenarekin.

Aurkeztutako ekimen guztiei, sarituak izan ala ez, zabalkundea emango zaie, Vitoria-Gasteizek garapen jasangarriarekin hartua duen konpromisoari Itun Berdearen komunitateak egiten dizkion ekarpenen erakusle diren aldetik.

5. oinarria. Sariak jakinarazteko edo argitaratzeko bidea

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) 24.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren webguneko (vitoria-gasteiz.org) iragarki-taula digitalean argitaratuko dira. Emandako edo ukatutako sarien zerrenda argitaratuko da, pertsona edo enpresa eskatzaileak adierazita, baita zenbatekoa ere, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak emandako irizpideak kontuan hartuz.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren dirulaguntza eta laguntzak Vitoria-Gasteizko Udalaren gardentasun atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak; horrez gain, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

6. oinarria. Erakundeek deialdian parte hartzeko bete beharreko baldintzak

Enpresa bakoitzak gehienez bi jardunbide aurkeztu ahal izango ditu.

Baldintza orokorrak

Ingurumen arloko jardunbide onenentzako Itun Berdea X. sarietarako hautagai den erakunde orok baldintza hauek bete behar ditu:

Itun Berdearen komunitateari (https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=eu&uid=u_833ce30_133affe9adf_7fd8) atxikita egon beharko du, eta bere prozesu, produktu edo zerbitzuen ingurumen-inpaktua modu aktiboan murrizteko jardunbide onen bat ezarria izan beharko du 2025-2026 aldian, garapen jasagarriko helburuak betetzeko konpromisoaren adierazgarri.

— Indarrean dagoen araudiko baldintzak betetzea eta indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, erregelamenduz ezarritako moduan.

— Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorren 11. artikuluan edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. artikuluan aipatzen diren debeku-egoeretako batean ez egotea.

Baldintza espezifikoak.

Zuzkidura ekonomikoa duen saria eskuratzeko, baldintza gehigarri hauek bete behar dira:

— Enpresa izatea (industria, merkataritza edo irabazi-asmoko zerbitzuak ematen dituen erakundea).

— Enpresa Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatuta egotea (egoitza fisikoa eta/edo fiskala).

Itun Berdeari atxikitako erakundeek jaso ahal izango dute ohorezko saria, baldin eta Itun Berdearen komunitateko balioen presentzia handitzea lortu badute, beren jarduera-eremuan ekimenak garatuta:

— Vitoria-Gasteiztik kanpoko enpresak.

— Sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak izatea, Vitoria-Gasteizkoak izan edo ez.

— Irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta elkarte- eta lanbide-jarduerak egiten dituztenak izatea, Vitoria-Gasteizkoak izan edo ez.

7. oinarria. Baliabide ekonomikoak

Deialdi honetan aurreikusitako zuzkidura, 6.000,00 eurokoa, 2026rako indarrean dagoen udal-aurrekontuko 2026/08.21.4331.489.85 partidako ("Itun Berdea sariak") saldoaren kontura.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 58. artikuluan ezarritakoaren ildotik, aurrekontu-zuzkidura hori handitzeko modua izango da, organo eskudunaren erabaki baten bitartez, baldin eta udal sail horrek kudeatutako dirulaguntza-partidetan (guztiak kontuan hartuta) krediturik badago. Edonola ere, zenbateko gehigarria erabiltzekotan, kreditu erabilgarria badagoelako deklarazioa egin beharko da, eta, behar izanez gero, dagokion aurrekontu aldakuntza egin beharko da horretarako, dirulaguntza emateko ebazpenaren aurreko edozein unetan (deialdia argitaratu eman zen hedabide berberetan).

8. oinarria. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarri izango dira xede bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein direla ere eman dituzten administrazioak edo ente publiko edo pribatuak, diren estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak.

9. oinarria. Eskabideak aurkezteko epea eta bideak

9.1. Deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik 2026ko irailaren 30era artekoa izango da eskabideak aurkezteko epea, biak barne, aldez aurretik Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen laburpen-iragarkia argitaratuta.

9.2. Bide hauek baliatu ahalko dira eskabidea eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko:

— Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan (<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/portal/eu/>). Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahal izango da, erregistro elektronikoaren bidez. Horretarako, identifikazio-txartel digital bat erabili beharko da.

— Aurrez aurre:

- Udalaren bulego teknikoetan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea); ordutegia: 8:30 - 14:00 (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo www.vitoria-gasteiz.org webgunean).

- Gizarte-etxeen sareko herritarrei laguntzeko bulegoetan (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo www.vitoria-gasteiz.org webgunean).

Aurrez aurre arreta emateko gunean, dokumentazioa orri solteetan aurkeztu beharko da, graparik, klipik edo multzokatzeko beste sistemarik erabili gabe.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. b artikuluan xedatutakoaren arabera, eskabideak posta-bulegoetan ere aurkeztu ahalko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan.

Deialdi honetako izapideak arintze aldera, helbide elektroniko bat gaituta eta operatibo eduki beharko dute eskabidea egiten duten pertsonen tramitazioak iraun bitartean, aurkeztutako eskabideak arin eta eraginkortasunez ebazteko oharrak jaso ahal izateko.

9.3. Interesdunek eskabidea aurkezteak oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

9.4. Eskabideak epez kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira.

10. oinarria. Nahitaezko agiriak

Dokumentazio hau erantsi beharko zaie oinarri hauetan arautzen diren eskabideei:

— Eskabide-orria eta zinpeko aitorpena (I. eranskina).

— Erakundearen IFZaren kopia, eskabidea aurkezten duen pertsonaren nortasun-agiriaren kopia, eta, hura titularra ez bada, jarduteko ordezkatzeko-ahalmenaren egiaztagiria.

Fitxa teknikoa, (II. eranskina). - Garatutako jardunbide onaren eta hartutako neurrien alderdirik nabarmenenak eta jardunbide onaren ondorioz ingurumeneari eta enpresari izandako emaitzak eta onurak zehazten dituen oroitidazkia erantsi beharko zaio fitxa teknikoari. Gehienez lauzpabost orriko luzera gomendatzen da, horretarako.

— Enpresaren logoa, ahal dela formatu bektorialetan (.ai, .pdf, .eps). Formatu ez-bektorialen kasuan (.jpeg, .png, .tif), kalitate handiko artxiboak izan beharko dira.

— Aurkeztutako jardunbide onari eta erakundeari buruzko material grafiko hau:

1) Datu aipagarriak edo informazio osagarria, eta jardunbidea argitzen duten irudiak (gutxienez 2 edo 3).

2) Enpresa eta haren jarduerari buruzko irudiak (gutxienez 2 edo 3).

2024ko azaroaren 26an, Itun Berdeko enpresen XIII. topaketan sariak banatzeko egingo den ekitaldian, jardunbideak eta erakunde irabazleak aurkezteko euskarri bisual gisa baino ez da erabiliko material grafiko hori.

Hautagaitza erakunde hautagaia ez den beste erakunde batek aurkezteko badu, azken horren berariazko baimena aurkeztu beharko da, legezko ordezkariak sinatua, hautagaitza aurkezteko baimena ematen duela jasotzen duena.

Parte hartzen duten enpresek entregatzen duten informazioa sariak zeini emango zaizkien erabakitze baliatuko da, eta isilpeko informazio gisa gordeko, salbu eta epaimahaiaren ustez publizitatea egin behar zaien alderdiak, baldin saria irabazi duten enpresei badagozkie eta sariarekin ikustekorik badute.

11. oinarria. Eskabidearen akatsak zuzentzea

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 20.4 artikulua ildotik (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia), eskabideak deialdian xedatutako betekizunak betetzen ez baditu, 10 eguneko epean hutsak zuzen ditzan errekerituko dio organo eskudunak interesdunari. Halaber, ohartaraziko zaio ezen, horrela egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, betiere, ebazpena eman ondoren, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 9/2015 Legearen 68. artikulua xedatutakoaren arabera.

12. oinarria. Saria emateko prozedura: epaimahaiaren erabakia

Entitate hauen ordezkari banak osatutako epaimahaiak erabakiko du sariak zeini eman:

— Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saila: Enpresa Zerbitzuaren burutza edo hark eskuordetutako pertsona.

— ACLIMA. Euskadiko Ingurumeneko Industrien Kluster Elkarteak: Zuzendaritza nagusia edo hark eskuordetzen duen pertsona.

— Hiri Ereduearen, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saila: Jasangarritasun, Klima eta Energia Zerbitzuko burua edo hark eskuordetzen duena.

Epaimahaiak eratu aurretik, interesdunek errekusazio-eskubidea baliatu ahal izan dezaten legez ezarritako kasu eta baldintzetan, eta betiere Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.10 artikuluan ezarritakoa betetz, epaimahaiaren osaketa argitaratuko da Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpen bidez.

Epaimahaiak kideak behartuta egongo dira konfidentzialtasunik handiena gordetzera, aurkeztutako hautagaitzen inguruan, baita eztabaida eta bozketen inguruan ere.

Ingurumen-jardunbide onenentzako Itun Berdea Sarien X. Edizioko sariak emango dituen epaimahaiaren lana errazte aldera, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Enpresen Zerbitzuak aldeztu aurretik berrikusi eta sailkatuko ditu hautagaitzak eta aurkeztutako dokumentazioa.

Sariei buruzko erabakia apela ezin izango da, eta epaimahaiak hartuko du. Erabaki hori isilpekoa izango da, eta ez zaie jakinaraziko sarituei, ezta gainerako hautagaitzei ere, harik eta azaroaren 26an Europa jauregian izango den Itun Berdearen Komunitateko Enpresen XIII. Topaketan jendaurrean jakinarazi arte. Sari-banaketan, saritutako erakundearen ordezkari batek, edo hark eskuordetutako norbaitek egon behar du. Hala ez bada, uko egin diola ulertuko da.

Sariren bat nahiz guztiak eman gabe utzi ahal izango ditu epaimahaiak, baldin eta aurkeztu diren jardunbideek nahikoa kalitatez ez dutela irizten badiot.

Epaimahaiak epaia eman ondoren, zeina Itun Berdeko komunitateko enpresen XIII. Topaketan argitaratuko baita, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpen bidez emango edo ukatuko dira laguntzak, Tokiko Gobernu Batzarrek eskumenak eskuordetzeko buruz 2025eko maiatzaren 16an hartutako erabakiarekin bat etorriz.

13. oinarria. Ebazteko epea

Sariei buruzko erabakia ez da azaroaren 26ra arte jakinaraziko. Egun horretan, Europa jauregian egingo den Itun Berdearen Komunitateko Enpresen XIII. Topaketan jakinaraziko da, legeak ezartzen duen moduan jakinarazi beharra gorabehera.

Prozeduraren ebazpena eman eta argitaratzeko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunaren biharamunetik.

Dirulaguntzen ordenantza orokorraren 24.5 artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren ildotik, eskabideak ezetsitzat jo ahalko dituzte interesdunek, administrazioaren isiltasuna dela medio, baldin eta aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko epea igarotzen delarik berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada.

14. oinarria. Onuradunen betebeharrak

Ingurumen-jardunbide onenentzako Itun Berdea Sarien X. edizioko deialdian parte hartzeak oinarri hauek onartzea ekarriko du berekin.

Saritutako erakundearen ordezkari batek edo hark eskuordetutako norbaitek sari-banaketan egon behar du. Hala ez bada, uko egin diola ulertuko da; izan ere, sariei buruzko erabakia ez da azaroaren 26an Europa Jauregian egingo den Itun Berdearen Komunitateko enpresen XIII. Topaketa egin arte jakinaraziko.

15. oinarria. Balioespen-irizpideak

Jardueraren ingurumen-alderdiak hobeto kontrolatzera bideratutako jardunbideak baloratuko dira, hala nola, enpresek 2025-2026 aldian baliabideen kontsumo arduratsu eta efizientea (materialak, ura, energia) izateko eta emisio, hondakin eta isurketak murrizteko ezarritako jarduerak – 2025a baino lehenago hasitakoak ere bai, betiere 2025/2026 aldian indarrean jarraitzen badute. Azken kasu horretan, hautagaitzak 2025ean eta/edo 2026an lortutako emaitzak adierazi behar ditu.

Bereziki kontuan hartuko da ez daitezela izan ekintza isolatuak, enpresak epe ertainerako duen estrategiaren parte izatea (2030 Horizon), eta enpresa-sektoreak behar duen trantsizio-ekologikoaren arloko jardunbideen adibide izatea.

Jardunbideak balioesteko (lana, jarduera eta/edo aurkeztutako proiektua), irizpide hauek hartuko dira kontuan:

— Aplikagarritasuna eta erreplikagarritasuna: jardunbieak hainbat sektoretan inplementatzeko duen gaitasuna, bai eta beste erakunde batzuetan antzeko emaitzekin erreproduzitzeko potentziala ere.

— Originaltasuna eta eraginkortasuna: soluzioa jardunbide konbentzionaletatik bereiztea, eta, aldi berean, emaitza zehatz eta neurgarriak erakustea.

— Izaera berritzailea: ekimenaren berritasuna sektoreko ohiko jardunbideei dagokienez, kontuan hartuta teknologia berrien erabilera, ingurumen-kudeaketako ikuspegiak edo ereduak.

— Ingurumen-inpaktu positiboa: ingurunean sortutako onurak, hala nola emisioak, hondakinak edo baliabideen kontsumoa murriztea eta ingurumen-adierazleak hobetzea.

— Aurkeztutako lanak, jarduerak edo proiektuak gizartean duen eragina: ekimenak pertsonentzat sortzen dituen onurak, hala nola lan-ingurunearen hobekuntza, sentsibilizazioa edo komunitatean duen eragina.

— Garapen lasangarrirako helburuekin (GJH) bat etortzea: jarduketak zenbateraino laguntzen dien GJHei, ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-hobekuntzak integratzen baititu helburu global horiekin bat etorritik.

— Jardunbide ona, epe ertaineko plangintza baten barruan: jarduketa enpresa-estrategia egituratu batean integratzea, 2030erako helburuak zehaztuta eta bideratuta.

Irizpide hauek baloratzeko, bi bloketan lehenetsiko dira, eta lehentasunezko irizpideen bloke bat eta irizpide osagarrien bloke bat bereiziko dira. Hona hemen lehentasunak:

1- Lehentasunezko irizpideak.

— Ingurumen-inpaktu positiboa.

— Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) bat etortzea.

— Aurkeztutako lanak, jarduerak edo proiektuak gizartean duen eragina.

— Izaera berritzailea.

2- Irizpide osagarriak.

— Originaltasuna eta eraginkortasuna.

— Aplikagarritasuna eta erreplikagarritasuna.

— Epe ertain edo luzeko plangintza bateko jardunbide ona izatea.

Balorazio-prozesuan, epaimahaiak, egoki irizten badio, justifikazio-dokumentazioa bidaltzeko eskatu ahal izango du, bai eta dagozkion egiaztapenak egin ere. Erakunde hautagaiek praktikari eta haren eraginari buruzko informazio egiaztagarria eman beharko dute (dokumentu ofizialak edo material grafikoa).

Era berean, aurkeztutako jardueren ezartze-maila bertatik bertara ezagutzearen, ebaluazio-ikustaldiak egin ahal izango ditu Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Enpresen Zerbitzuak parte hartzen duten enpresetara.

16. oinarria. Dirulaguntza kalkulatzeko eta ordaintzea

Hiru sarietako bakoitzaren zenbatekoak 16. oinarrian daude ezarrita: 2.000,00 euro sari bakoitzeko, alde batera utzita, 12. oinarriak aurreikusten duen bezala, epaimahaiak sari bat edo guztiak eman gabe uztea.

Saritutako erakundeek sariari dagokion diru-sarrera egiteko banku-titulartasunaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, erregistro bidez, Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan (<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/portal/eu/>).

17. oinarria. Dirulaguntzak aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan edozein aldaketa funtsezko gertatuz gero, gerta liteke ebazpena aldatu beharra, betiere hirugarren baten eskubideak kaltetzen ez badira, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak —Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onesten du— 64. artikuluan eta dirulaguntzen udal ordenantzak 25.1 artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) xedatutakoaren arabera.

18. oinarria. Epea

Ez da behar.

19. oinarria. Justifikatzeko modua

Ez da behar.

20. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Vitoria-Gasteizko Udalak, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren bitartez, emandako laguntzak aurreikusitako xedeetara bideratzen direla bermatzeko beharrezko diren kontrol- eta ebaluazio-ekintzak egin ahalko ditu, eta eskatzen dien informazio osagarri guztia eman beharko diote pertsona onuradunek. Horrez gain, udaleko kontu hartzaileak nagusiaren eskumena da Vitoria-Gasteizko Udalak emandako dirulaguntzen finantza-kontrola egitea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren hamalaugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

21. oinarria. Dirulaguntza galtzea, laguntzak itzultzea, eta horretarako prozedura

Deialdi honetan adierazten diren betebeharrak ez betetzea laguntza itzularazteko arrazoi izango da, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Oinarri hauetan jasotako kasuez gain, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 40. artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) adierazten diren kasuetan, itzuli egin beharko dira jasotako zenbatekoak, eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzultzea dagokiola erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesak eskatuko dira, edo zordunak itzulketa sartzen duen egunera artekoak, hura baino lehenagokoa bada.

Halaber, Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da itzultzeko kausei, preskripzioari, itzultzeko betebeharra duten pertsonen eta itzulketa-prozedurari dagokienez.

22. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera egingo da datu pertsonalen tratamendua, orobat aintzat hartuz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (UE) 2016/679 Erregelamendua, datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela; Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek. Horien gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero —norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, Vitoria-Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko da.

23. oinarria. Berdintasun-klausulak

Entitate onuradunak Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko martxoaren 16ko 1/2023 Legean xedatutakoa bete beharko du. Era berean, errespetatu egin beharko ditu Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko otsailaren 15eko 4/2024 Legea, 2024ko martxoaren 1etik indarrean dagoena, eta Yogyakarta printzipioak (Giza eskubideen nazioarteko legedia sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagozkienetan aplikatzeari buruzko printzipioak).

Hartara, giza eskubideen alorreko legedia eta dokumentazioa errespetatzeaz gain, hitzarmena sinatzen duen entitatearen proiektuak bat egingo du Vitoria-Gasteizko Udalak bultzatzen dituen genero berdintasuneko politikekin.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko maiatzaren 15ean

Administrazio Zerbitzuko burua

JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ

Eranskinak**Eskabidea eta zinpeko aitorpena (I. eranskina)**

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/50/70/85070.pdf>

Fitxa teknikoa, II. eranskina

<https://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?idioma=eu&accionWe001=adjunto&nombre=62570.pdf>